

Anuntxi Arana

Itzuli edo ez itzuli

Euskaraz egiten dena erdarara itzuli behar al da? Ezetz diote batzuek, arrazoi sendoak emanez. Juan Ignacio Pérez Iglesiasen ustez, erdaldunek jakin behar dute zer galtzen duten euskaraz ez jakinik. Antton Lukuk bere azken liburuaz zioen euskaldunentzat idatzia zuela eta ez ziela baitezpada besteei ere helarazi nahi. Eta Agustin Zamorak gaineratu zuen aski lan badugula euskaraz ekoizteko, erdarara itzultzen denbora pasatzeko gero. Bai, kartsuagoak bagina eta katalanek bezala egingo bagenu...

Baina ez gara eta ez dugu. *Mezularia* irrati saioa egiten zuenean, Maite Artola arrangura zen kazetariak mesedezka ibili behar zutelako prentsaurrekoetan euskal politikariak solas apur batzuk euskaraz bota zituzaten irratiari pasatzeko. Fermin Muguruza ere haserre mintzatu zen, Mikel Laboa zendu ondoan ETB2n erdaraz entzun zituela-eta euskaldunen hizpideak, eta Lluís Llach-enak, aldiz, katalanez azpitituluekin; haren iritziz, euskaldunok ETB2an euskaraz azaltzen ez direno jai dugu, alferrikakoak izango dira euskararen aldeko kanpaina guztiak –garai hartan kanpainak egiten baitziren.

Nago itzulpenak euskararen erabilera erraz lezakeela, eta ez dut ahanztekoa zer frustrazio izan zen Iparraldeko euskara ederrenetarikoz mintzo den lagun batek bere hitzaldia frantsesetik eman zuenean, entzule gutxi batzuek ez zutelako euskaraz ulertzen: erakunde antolatzaileak ez omen zuen itzultzailea ordaintzeko dirurik. Baina ez da sos kontua soilik. Gertatu izan da Angelun hizkuntzalari frantses bati itzultzaile bat ekarri izana, euskaldunentzat; hau da, inorentzat, hemen denek baitakite frantsesetik eta denek bertsiotik originala hobesten. Sentsibilitatea ere behar da premiak non diren ikusteko, dirua ezartzen baita, gutxi bada gutxi, baina nork probesteko?



GAIZKA IROZ

Esperientziak erakusten du biltzar eta mintzaldietan itzulpen sistematikoa eskaintzeak euskaraz egiteko parada ematen duela –edo erdaraz egiteko estakurua kentzen– eta horretarako laguntza ez dela alferrikakoa. Elkarte txiroen bilkuretan musu-truk aritzen baitira itzultzaileak maiz; leher eginda eta irriño xalo batez onartzen dituzte bihotzez bihurtzen zaizkien eskerrak eta kafesne beroa.

Holako kezkarik ez ahaltsuek. Oraindik EAJko buru zela, Josu Jon Imazek “transbertsalitatea” zer garrantzitsua den idatzi zuen erdaraz, *El Correo*. Egun batzuk lehenago Hazparnen izana zen bisitan eta han, *Herria* astekarian irakurri genuenez, hitz hauek erabili zituen: “Euskaraz bizi behar dugu, euskaraz maitatu eta euskaraz egin eguneroko eginbideetan. Euskaldunek elgar entzutearen

beharra badugu, garen populu bat bezala onartuak izateko”. Elgar irakurtzearen beharrik ez, itxura. Beste buru ohi batek ere erdaraz kontatu zituen bere memoriak, kazetaria erdalduna zelakoan. Ez bide zuen euskal profesional onik topatu zazpi probintzietan.

Lehenengo neguan Juan Jose Ibarretzek, bere plana Madrilan aurkeztu zueneko 5. urteurrenean, artikulu bat idatzi zuen

Deian, zeharo abertzale eta zeharo erdaraz; euskaraz eginda ere biharamunean erdarara itzulia ageriko zela jakin arren.

Udaberria argitzekotan zegoen Imanol Murua Uriak *Loiolako begiak* liburua plazaratu zuenean. Scoop bat euskaraz idatzia, hori da bikaina, edukiaren balioaz gainera. Bere lana aurkeztera Baionara etorri zenean, Jean Pierre Massias irakasleak gomitatuturik, pozik entzun genuen euskaldunek, eta frantsimuntek ere bai, Antton Harinordoki itzultzaileari esker. Horrela eginez gero beti, denok ginateke irabazle eta inor ez galtzaile, eta ez genuke hain estuturik egon beharko bestelako garaipenen menturan. ■

Gertatu izan da Angelun hizkuntzalari frantses bati itzultzaile bat ekarri izana, euskaldunentzat;

hau da, inorentzat, hemen denek baitakite frantsesetik eta denek bertsiotik originala hobesten.

Sentsibilitatea ere behar da premiak non diren

ikusteko, dirua ezartzen baita, gutxi bada

gutxi, baina nork probesteko?